

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**474/2021 Foru Agindua, abenduaren 23koa. Esleitu gabe uztea Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1086.001) lehiaketa bidez betetzeko deialdia**

Azaroaren 9ko 429/2021 Foru Aginduaren bidez, Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1086.001) berriazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu denez eta inork ez duenez deialdian parte hartu, esleitu gabe utzi da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Esleitu gabe uztea Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1086.001) berriazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 23a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**